

UR-KIROLETAKO ESKOLA

NEGOZIOAREN DEFINIZIOA

Ur-kirolen praktika irakastea.

MERKATU-DATUAK

Ur-kirolak egitea gero eta zabalduago dago, eta biztanleriaren gero eta sektore zabalagoek jotzen dute horietara. Kirol- eta jolas-nautikaren sektorean itsasketarekin zerikusia duten jardueren sorta zabala sartzen da. Hainbat azpi-sektoreen sarea osatzen dute: itsasontziak egin eta saltzea, kirol-portuak, ontziak alokatzea, ontziak mantentzea, ur-kirolak egiteko beharrezko diren osagarri askoren merkaturatzea, eta bela-eskolak.

Espainiak 7.880 kilometroko itsasertza du, eta hor 233 kirol-portu kokatzen dira, 77.284 amarratzerekin guztira. 1999ko datuen arabera, ur-kiroletako elkarteak, arrantzakoak barne, 3.062 dira, eta horietan gutxi gorabehera 179.587 laketontzi daude.

Fitxa honen helburu diren ur-kiroletako eskoletan honelakoetan itsastatzeko ikastaroak ematen dira:

- Motordun ontziak: 4 m-rainoko luzera eta gehienezko potentzia 10 kW (13 CV).
- Bela-ontziak: 5 m-rainoko luzera.
- Uretako motorrak: hauek 98.12.16ko Aginduak (BOE, 99.01.13), uretako motorrak erregistratu eta matrikulatzeko prozedura arautzen duenak, ezartzen dituen betebeharrak bete behar ditu.
- Piraguak, kayak, motorrik gabeko kanoak, patin pedaldunak edota 3,5 kW-eko potentzia baino gutxiagoko motorra dutenak.
- Beladun oholak edo motordun ohol irristagarriak, edo ur gaineko instalazio ainguratuak.

Halaber, eskola hauetan sartuko lirateke Federazioaren baimena behar duten itsasontzietarako prestakuntza, bela-federazioek emana, eta oinarrian zera dena:

- 6 metroraingoko luzera eta gehienezko potentzia 40 kW (54 CV) duten laketontzien gobernua, egunez itsastatzeko Itsas Kapitaintzak mugaturiko guneeetan.

Lizentziak bela eta motonautikako Federazio baimenduek ematen dituzte, dagokien azterketa gainditu ondoren.

Beste mota bateko itsasontzietarako: yateak, laketontzi nagusiak... agintari eskudunek emandako titulazio homologatua behar da

ENPRESA-PLANA

Marketin-plana

□ *Zerbitzuak*

Itsasketa- eta ur-kirolak egiteko irakaskuntza. Ohikoenak bela, urpekaritza, urretako eskia, motonautika, arraunketa eta piraguismoa dira. Beste negozio-mota bat sektore berean akademia nautikoa da, non prestakuntza-ikastaroak ematen baitira ur-kiroletako titulazioak lortzeko: oinarrizko itsasketarako patroia, laketontzien patroia, yate-patroia eta yate-kapitaina.

□ *Sustapena*

Bertan bizi den jendeari zuzentzeko, bitartekorik erabilienak hauek dira: katalogoak, gida tematikoetan sartzea eta, batez ere, kirol-federazioarekin estu loturik egotea. Turista atzemateko, gomendagarriena merkataritza-hitzarmenak hotelekin, bidai operadoreekin, turismo-gidariekin eta pizgarri-turismo, batzar eta biltzarrak antolatzen dituzten enpresekin.

Plan Operatiboa

□ *Kokapena*

Negozio-motaren arabera. Ohikoena portu nautikoetan edo hondartzetan kokatzea da, baina horretarako Udalaren, Itsas Komandantziaren eta, kasu batzuetan, Itsas Kapitaintzaren baimen espezifiko behar da.

Giza baliabideen plana

Ur-kiroletako hainbat mota irakatsi nahi baldin badira, dagokion federazioak titulaturiko monitoreak izan behar ditugu:

- Belako Euskal Federazioa.
- Piraguismoko Euskal Federazioa.
- Arraunketako Euskal Federazioa.
- Ur azpiko kiroletarako Euskal Federazioa.

Inbertsio-plana eta emaitzen aurreikuspena

Negozioa abian jarri aurretik sarrera eta gastuen aurreikuspena egitea komeni da.

Garapen-en elkartutako agentzietan autoenplegurako orientabide- eta laguntza-zerbitzuak eskaintzen dira.

<http://www.garapen.net>

Administrazio-izapideak

EAE: Administrazio-prozedura hauek jarduera bat abian jartzeko sektoreka dauden laguntzak eta egin beharreko izapideak azaltzen dituzte.

<http://www.ej-gv.net/m20/M20BusquedaProcedimientosServlet?Cmd=listarAyudas&lenguaje=es>
<http://www.ej-gv.net/m20/M20BusquedaProcedimientosServlet?lenguaje=es&EstadoVigencia=1>

Enpresa bat sortzeko informazio osoa

<http://www.creaciondempresas.com/>

Laguntzak, diru-laguntzak eta bekak

Espainia. Herri Administrazioen Ministerioa.

Estatuko Administrazio Orokorrek eta Autonomia Erkidegoek deitutako laguntza, diru-laguntza, beka eta sariei buruzko kontsulta lagundua, baita Europako Batasunak eta Toki Administrazioak deituriko batzuei buruzkoa ere.

IDEIAK ETA ARRAKASTAREN GAKOAK

- *Segurtasunik handiena, arriskurik txikiena*

Bezeroen segurtasuna ziurtatu behar da, bitartekoetan zuhurkeriarik gabe. Alde horretatik, administrazioak berak segurtasun-neurri zorrotzak betetzea eskatzen du baimena eman ahal izateko. Baina neurri guztiak gutxi dira itsasoan gabiltzanean.

- *Negozio paraleloa*

Itun edo hitzarmenak egin daitezke osagarri eta gai nautikoak saldu edo itsasontziak konpontzen diharduten beste negozio batzuekin. Elkartzeak indarra ematen du.

- *Turista nautikoa lortzea*

Hoteletako gidarien, ekitaldiak antolatzen dituzten enpresen eta Internet-en bidez irits daiteke turistarengana. Interesgarria da nautikan oinarritutako eduki, ikastaroen argibide, chat, informazio meteorologiko, link interesgarri eta abarrekin web guneak garatzea.

HELBIDE INTERESGARRIAK

Euskadiko Kanoe Federakuntza

<http://www.fvpiraguismo.org>

Euskadiko Bela Federazioa

<http://www.euskalnet.net/semark/cabecera.htm>

Euskal Herriko Urpeko Jardueren Federakuntza

<http://www.ehif-fvas.org>

Federación Española de Vela — Espainiako Bela Federazioa

<http://www.rfev.es>

Atari tematikoak

<http://www.atodavela.com>

<http://www.fondear.com>